



V."PIRINIOTAR BEHI ARRAZA" ARGAZKI LEHIAKETARAKO OINARRIAK

PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa irekia da eta parte hartzeak oinarri hauek onartzea eta betetzea dakar.

GAIA

"PIRINIOTAR BEHI ARRAZA ETA BERE HARAGI %100 AUTOKTONOA"

XEDEA

2021eko Irailaren 18 eta 19an ospatuko den Behi-Azienda Pirinotarraren XXXIII. Lehiaketa-Enkante Nazionala iragarriko duen kartel eta eskuorritako argazkiak aukeratzea.

ARGAZKI KOPURUA, AURKEZPENA ETA AURKEZTEKO EPEA

Parte-hartzaile bakoitzak hiru (3) argazki aurkezten ahal ditu gehienez ere, eta baldintza edo ezaugarri hauek bete beharko dira

- berak egindakoak, hau da, propioak
- argitaratu gabeak. Dena den, horietako bakarra izan daiteke aukeratua.
- Argazkiak behi pirinotarraren eremu naturalean ateratakoak izan behar dute
- koloretan edo txuri- beltzean
- **formatu bertikalean soilik** kartelaren tamaina eta diseinua dela eta
- Euskarri digitalean aurkeztuko dira, JPG edo TIFF formatuan.
- Ahalik eta erresoluzio handienarekin eta moldaketa gutxienez: argia, kontrastea, tamaina (gehienez %20 txikiagotu ahalko da). Moldaketa gehiegi dutela ikusiz gero, epaimahaiak argazkiak lehiaketatik kanpo utz ditzake.
- Fitxeroak aurkezteko 2 aukera daude:
 - I. Eskura: CD, DVD edo pen-drive batean, Baztango Udalaren bulegoetan (Foru Plaza, z/g. Elizondo).
 - II. Posta elektronikoz: baztan@baztan.eus helbidera igorrita (2MB gehienez)

Argazkiekin batera, honako datu hauek ere eman behar dira:

- Argazkiaren izenburua
- Egilearen izen-abizenak

- Helbidea, herria
- Posta elektronikoa
- Telefonoa

Aurkezteko epea: 2021eko ekainaren 18a, arratsaldeko 14:00etan (ortzirala).

EPAIMAHAIA

Honako hauek osatuko dute epaimahaia: ASPINA elkarteko ordezkari bat, bi abeltzain, argazkigintzan aditu bat eta Baztango Udaleko zinegotzi bat.

SARIAK

Epaimahaiak hiru (3) argazki hoberenak sarituko ditu, urrenez urren:

1. Saria: **400 €**
2. Saria: **200 €**
3. Saria: **100 €ekin.**

Lehen sariak kartela eta liburuxkaren azala iragarriko ditu. Bertzeak aipatu liburuxka horretan eta behi-azienda lehiaketaren publizitaterako baliabide ezberdinetan ere erabiliak izan daitezke.

- Behian ingurune naturala islatzen, humanizatzen duten eta autoktono izaera ematen dioten argazkiak lehenetsiko dira (familia, familia-esplotazioa, abeltzainak...) eta
- Arraza horrek sortzen duen haragiaren kalitate bikaina agerian uzten duten edo ikusarazten diguten argazkiak, " % 100 bertako Pirinioetako logotipoa" rekin identifikatzen laguntzen dutenak.

Aurkeztutako argazkiak Baztango Udaleko eta Aspinako web orrietan ere argitaratuak izan daitezke.

Irabazleen izenak honela jakinaraziko dira: irabazleei zuzenean jakinaraziko zaie eta aipatu webguneetan eta tokiko komunikabideetan argitaratuko da.

Sari-banaketa behi-azienda pirinotarraren lehiaketaren egunean izanen da.

ERANTZUKIZUNA ETA ESKUBIDEAK

Antolakuntza taldeak erabakiko du zer egin oinarri hauetan aurreikusirik ez dagoen egoera baten aitzinean.

Egile bakoitzak lehiaketaren antolakuntza taldeari ematen dizkio bere argazkien erabilera eta erreprodukzio eskubideak. Honek, aldiz, erabilitako argazki guztien egilea nor den ezagutzera emanen du.

LEHIAKETAREN JARRAIPENA

Lehiaketaren jarraipena Baztango Udaleko eta Aspinako webguneen bidez egiten ahal da.

Edozein kontsultarako baztan@cederna.es helbidera zuzendu.



Elizondo, Baztan 2021-02-10